

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2013ko uztailaren 3a. IX. urtea. 2.621. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)



MIKEL IRAOLA

**Aitor Aldalur** Lleidako futbol jokalaria

## «Nigatik erakutsi duten interesak bultzatu nau eskaintza onartzera»

Aitor Aldalur tolosarrak Lleida futbol taldean jokatu du datozen bi denboraldietan; punta-puntako futbol jokalaria izatea du amets eta bere ibilbidean «beste aurrerapauso» bat izango dela dio **04**

## Udalak bertako zuhaitz espezieak landatuko ditu Uzturreko lurretan

Biodibertsitatearen alde eginez, Tolosako Udalak, 24 hektareako lursaila ustiatuko du **03**

## Autokarabanek turismo eskaintza berria dute, Tolosan



Hamabi autokarabanentzako tokia jarri dute San Esteban auzoan. HITZA

## Udalak presoen eskubideen aldeko konpromisoa eutsiko die

Alegiako Udalak 'Euskal Presoak Euskal Herrira' jartzen duen banderola kentzeko agindua jaso du **06**

## Tolosako Udalak Herriarteko finalera joateko deia egin du

Pilota partidetara joateko autobusak doan jarri dituzte, eta ondoren herri bazkaria izango da **05**



hitza



Motxilak **salgai 15 eurotan**  
Koloreak: Berdea eta beltza

Eskuratzeko deitu  
**943-655 695**  
telefono zenbakira  
edo pasa HITZAko egoitza.  
(Araba etorb. 5 behea - Tolosa)

**Gutuna****Planak euskararentzat**

2008-2012ko Euskara Planaren ebaluazioa aurkeztu berri du Eusko Jaurlaritzak. Erabilera bultzatzeko laugarren plana da, baina Patxi Baztarrrika Hizkuntz Politikarako sailburuordeak jakinarazi duenez, erakundeek ez dituzte ezarritako hizkuntza irizpideak betetzen. Euskararen erabilaren normalizazioa txostenean bildutakoaren arabera, hutsune nabarmenak ditu administrazioan. Ez da berria, ezta sorpresa ere. Baina 2013-2017ko planak diseinatzeak unea den honetan, hausnarke-tarako oinarri sendoa eskaintzen digu.

Administrazioak ez ditu herri-tarren hizkuntza eskubideak bermatzen eta hori gabezia larria da. Herritarren eskubideen bermea izan beharko luke administrazioak, baina hizkuntzari lotzen bagatzaizkio, erakunde-ak herritarren eskubide urratzaila direla konturatzen gara.

Konpromisoari eta neke handiko lanei lotuta eman ditu pausoak euskararak. Ukaezina da azken urteetan aurrera egin dugula. Besterik da ordea, behar zen taimainan egin dugun aurrera. Herritarren sentsibilizazioa eta eragileen inplikazioa bilatu nahi izan da, eta horrek bere emaitzak eman ditu. Eta ongi dago herritarrei konpromisoa eta bultzada eskatzea, baina administrazioari dagokionean neurri zehatzak dira hartu beharrekoak.

Bost erakundetik batek dauka Euskara Plana azken ebaluazioaren arabera. Baina abian jarritako zenbat plan betetzen dira bere osotasunean? Zer gertatzen da betetzen ez diren hizkuntza irizpideekin? Ezer ez. Eta hortxe dago gakoa. Beste departamentuetako planak eta legeak zuzen betetzen ditu administrazioak. Euskararen al-diz ez. Borondateari lotzen zaizkio eta ez neurri zehatzei, gainera, legea bera da sarri urrats berriak emateko muga.

Erakundeen mailaketan murgiltzen bagara berriz, goi administrazioa begiztatzen da azken lerroan. Baliabide gehien dituz-

ten erakundeak izan arren, eus-kara gutxien erabiltzen duten erakundeak dira. Eta horrek eremu zabalean du eragin kaltegarria. Baita euskararen arnagune diren udalerrri euskaldunetan ere.

Udalerrri Euskaldunen Man-komunitateko kide garenok oso argi daukagu administrazioa euskalduntzeko Euskara Planak behar-beharrezkoak direla. UEMAk frogatutako esperientzia dauka administrazioaren euskalduntzean, eta egindako ibilbidean argi ikusi dugu neurri zehatzten gainean garatu diren ekintza planek emaitza ezin ho-beak eman dituztela. Herri txiki-tako hainbat udalek, baliabide gabaxi izanda ere, euskaraz funtzionatzeko gaitasuna lortu dute UEMArekin babesean.

UEMAk udalerrri euskaldunen erabateko euskalduntzea eta euskararen lurgunea zabaltzea du helburu. Euskararak, biziko bada, nagusi izango den guneak behar ditu eta udalerririk funtzio garrantzitsua betetzen dute horretan. Izan ere, daukagun errealitate soziolinguistikoa euskararen arnagune zabalena osatzen dute. Horregatik, berez administrazioak zerbitzuak euskaraz emateko gaitasunik ez izatea larria bada, are larriagoa bilakatzen da euskararen lurgunean. Udalerriotan hizkuntz politika ausartak gauzatzeko baldintzak daude eta hori da zehatzki euskarak behar duena.

UEMAko kide diren 71 herrietako udaletan euskararen erabilaren inguruko diagnosiak egiten ari gara. Hutsuneak bilatu eta errealtatetik pauso berriak ematea da helburua. Horretarako, neurri zehatzten gainean marraztuko ditugu udal guztietako Euskara Planak.

Goi mailako erakundetan ere, egungo egoera soziolinguistikotik abiatuta, hizkuntza politika aurrerakioan oinarritutako plan-ak behar ditugu. Euskararen arnaguneak kontutan izango dituztenak. Baina batez ere, 2013-2017ko Euskara Plan guztiek gauzatzeko bermea behar dute.

■ **Maren Belastegi.** UEMAk lehendakaria.

# Turismo eskaintza zabaltze aldera, martxan da Tolosako autokarabanen gunea

12 ibilgailuentzako lekua du, eta ur zikinak hustutzeko nahiz ur garbia hartzeko aukera eskainiko die bisitariei

**Itzea Urkizu**

Tolosaldeko Turismoko Plan Estrategikoan beste pauso bat emanez, eta turismo eskaintza zabaltzeko bidean, ireki dute jada, Tolosako autokarabanentzako zerbitzugunea. San Esteban auzoan egokitu dute lekua, eta Tolosako Udalak, besteak beste, «bestelako publiko bat ere Tolosara erakartzea» du helburu.

San Esteban auzoan prestatu duten gunean, autokarabanek edo bizitoki ibilgailuek soilik izango dute aparkatzeko aukera, eta beraz, kamioi, auto nahiz karabanek ezingo dute bertan egon.

Funtzionamenduari dagokionez, berriz, zerbitzugunea epe motzeko geldialdiei begira egokitu dute. Horrela, gehienez ere 72 orduz utzi ahal izango da ibilgailua bertan.

Denbora tarteak arautzeko, zerbitzугunera bertaraten dire-



San Esteban auzoan egokitu dute gunea. HITZA

nek 24 orduz aparkatzeko eskubidea emango dien txartela hartu beharko dute, euro baten truke, gunean bertan dagoen makinan; 10:00etatik hurrengo eguneko 10:00etara bitarteko balioa izango du txartelak.

Aipatzekoa da, era berean, komuneko urak eta dutxako ur zikinak hustutzeko aukera izango dela gunean, eta baita ur garbia eskuratzeko ere.

Gainera, eta turismoari zuzenduriko egitasmoa den aldetik,

San Esteban auzoko zerbitzугunean panel bat ere jarri dute. Bertan, erabilera arauak euskaraz, gazteleraz, ingelesez eta frantsesez zehazteaz gain, herriko interesgunean mapa eta bestelako informazioa eskuragarri izango dute bisitariek.

Azkenik, aipatzekoa da, martxan jarri berri den gune hau indartze aldera, udalak autokarabanen topaketa antolatzea ere aurrerikusi duela, datorren udazkenerako.

**→ Laburrak****Alde Zaharreko San Fermínak larunbatean**

**GIZARTEA** Tolosako Alde Zaharrean San Fermín jaiak ospatuko dituzte hilaren 6an. 12:00etan txupinazioa izango da, eta 12:30ean patata tortilla lehiaketa. 14:30ean barrikotea izango da, eta norberak bere janaria eraman beharko du. Heldu nahiz haurrentzako edaria eskuratzeko txartelak, berriz, bihar eta etzi erosi beharko dira, 3 euroren truke, Plaza Berrian, 18:30etik 20:30era. Bildutako dirua gastuetarako erabiliko dute.

**Tolosa CFren paleta txapelketa hastear**

**KIROLA** Tolosa CFek bikotekako paleta txapelketa antolatuko du. Izen-ematea zabalik da, ostirala bitarte, eta 656 71 92 63 edo 943 67 17 49 telefonotara deituta egin daiteke. Uztailan izango da, eta bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko du.

## Garmendiola kalea zabaldu diete herritarrei

**I. Urkizu**

Tolosako Udalak Garmendiola kalea erabilera publikorako irekitzea erabaki du. Hori dela eta, hemendik aurrera, herritarrek bide hori, behetik gorako noranzkoan erabiltzeko aukera izango dute.

Guardia Zibilak Garmendiola-ko aldaparen erabilera publikoa debekatu egin zuen Kondeaneko Aldapatik Gain Berri Ikastetxe-

ren sarreraraino, «segurtasuna» arrazoitzat jarriz.

Orain, Gain Berri ikastetxeak kalea zabaltzeko egindako eskarera aintzat hartuz, udalak bidea publikoari irekitzea lortu du. Udal ordezkariak Guardia Zibilen kuarteleko arduradunekin bildu ziren eta kalea zabaltzea adostu zuten. Akordio honi esker, ikastetxeak eraikinerako sarrera bat berreskuratu du.

**↓ Iragarki laburrak****ALOKAGAI**

**Etxebizitza Iruran.** 80 metro karratu eta 2 logela dituen etxebizitza alokagai dago Iruran. Interesatuak, deitu 636 53 00 00 telefono zenbakira.

**LAN BILA**

**Hauxe garbitasunak.** Garbiketako orokorrak: etxeak, bulego-

ak... Aurrekontua eskatzeko, deitu konpromisorik gabe 681 15 24 94 telefono zenbakira.

**Etxe lanetarako.** Goizetan, etxe lanak egin edota haurrek zaintzeko, esperientzia handiko emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Kotxea ere badauka. Interesa duen edonork, dei dezala 943 69 68 82 edo 606 52 19 92 telefono zenbakira.



### HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Iñaki Aizpuru, Hasier De los Rios, Julian Unanue eta Iñigo Muñoz, egitasmoaren aurkezpenean. ITZEA URKIZU

## Berreskuratze bidean jarriko dituzte bertako zuhaitz espezieak, Uzturren

Hilaren 15ean hasiko dira pinuak kable bidez ateratzen, eta azarora arte ariko dira jardun horretan

### Itzea Urkizu

Uzturre mendian bertako zuhaitz espezieak berreskuratuz, eta «Tolosa jasangarriago bat sortze bidean», egitasmo berri bat ezagutarazi du Tolosako Udala: «Azken hamarkadetan herriko biodibertsitatearen alde egin den proiekturik garrantzitsuenetakoa da». Izan ere, Uzturren udalarena den 24,4 hektareako lursaila ustiatuko dute, gaur egun dauden pinuak ateraz eta bertakoak diren espezieak landatuz.

Agerraldian, Naturzaindiako Iñaki Aizpuru, Tolosako Udaleko ingurumen zinegotzia Hasier De los Rios, Gipuzkoako Foru Aldun-

diko mendietako eta natura inguruneke zuzendari Julian Unanue, eta Tolosako Udaleko ingurumen teknikari Iñigo Muñoz izan dira.

Aldundiko Unanuek, bere aldeetik, «beste behin bertako espezieen aldeko apustua» egin dutela nabarmendu du, «batez ere herri lurretan». Horrela, kudeaketa lanetan ariko da foru aldundia, eta besteak beste, aterako dituzten pinuak aprobetxatzea proposatu dute.

Naturzaindia, berriz, duela pare bat urte sorturiko taldea da, eta Gipuzkoan herritarren aldeetik gisa honetako egitasmoei bul-tzada bat ematea du helburu. Iñaki Aizpuruaren esanetan: «Biologoak, ekonomilariak nahiz ingeniariak elkartzen gara, eta erakundeekin lan egitea izan da beti gure asmoa; horrela, ingurumen teknikariek lankidetzan aritzen gara».

Aditu hauek nabarmendu du-

tenez, Uzturren bertako espezieak landatzeak «paisajeari nabarmen eragingo dio, baina biodibertsitateari ere bai, 20 zuhaitz espezie baitaude berez Uzturren». Bide honetan, aberastasun horri laguntzeko elkartu dira hiru eragileak, eta honetarako, hilaren 15ean hasiko dira lanean; aurreikuspenen arabera, azarora bitartean ariko dira jardun horretan.

Gipuzkoa erdiguneko korridore ekologikoaren zati da Uzturre, eta ondorioz, EAEko korridore ekologikoen sarean dago. Honen harira Naturzaindiako Iñaki Aizpuru azaldu duenez, «leku estrategikoan dago, Nafarroako mendiek bat egiten duelako, eta baita Aiako Harria korridorearekin ere».

Egitasmoaren punturik berri-tzaileena, dena den, pinuak ateratzeko prozedurarena da, izan ere, ez dute ohiko sistema erabiliko. Zuhaitzak moztu eta bota behar-rean, atera egingo dituzte, eta

horretarako garabiak eta kableak erabiliko dituzte. Metodo hau balizteak, lurzuari kalte gutxiago eragiten diola nabarmendu dute arduradunek, eta horrekin batera, behetik hazten ari diren bertako zuhaitzak ere babestu egingo dira.

Lan hauek guztiak lehiaketa irabazi duen Tolosako Bimendi enpresak burutuko ditu, eta Tolosako Udaleko Iñigo Muñoz ingurumen teknikariak azaldu duenez, Gipuzkoa osoan teknika hau erabiltzen duen enpresa bakarra da.

Pinuak kableekin atera eta materiala puntu horretaraino eramateko, gainera, zenbait obra egingo dira hasiko dira lehenengo, hilaren 15ean. Horrela, telegrafo zaharretik Uzturrera doan bidea itxi egin beharko dute egun batzuetan.

Hasier De los Riosen udalak esku artean duen proiektuak hiru fase izango dituela nabarmendu du, biodibertsitateetik harago joango dela azpimarratuz.

Lehen zatia, *radiata* eta *larizio* espezieetako pinuak atera eta hauen ordez bertako zuhaitzak landatzearena izango da; aipatze-koa da, duela 56 urte, egurra ateratzeko helburuz, bi espezie horiek bakarrik landatu zituztela lursail horretan.

Lehen pauso honen ondoren, ordea, nolabaiteko gizarteratze

### Pinuak moztu eta bota behar-rean, atera egingo dituzte, kable eta garabi bidez

prozesua martxan jarriko dute, herritarrek inguru horrekin bat egin dezaten. Horregatik, bertako ondarea berreskuratzea aurreikusiko dute bigarren fasearako: Miserikordia edo erietxe zahar-reko baratzak harrizko terrazetan egokituko dituzte, eta arrastoak ere bai.

Horrez gain, zenbait mahai jar-tzea ere pentsatu dute, eta telegrafo zahar-rean begiratokia egokitze-ko ideia ere aipatu dute. Halaber, Tolosan urtero ospatzen duten zuhaitz eguna ere, egitasmo honi lotzea aurreikusiko dute, eta herritarrek eurek bertako espezieak ezagutu ahal izango dituzte. Azkenik, zonaldea erabilera publikorako egokituko dute, seinale nahiz panelak jarri.

### Orain dela 56 urteko landatzea

Egitasmo honen bidez berresku-ratu nahi duten lursaila, Miseri-kordiarena edo San Inazio erietxe-arena zen garai batean. 1966. urtean kontsorzio bat sinatu zuen Miserikordiak, estatuko baso ondarearekin, eta ondorioz pinuak landatu zituzten, ahalik eta gehien aprobetxatzeko baldintzapean, egurra ateratzeko.

Honen ondoren, 1989. urtean baso garbiketa bat egin zen arren, gaur arte ez da beste lanik egin 24,4 hektarea horietan, eta beraz, 56 urte igaro dira jada, pinu haiek landatu zirenez geroztik.

Pinudiak egoera txarrean daudela azaldu du De los Riosen, eta lehen urteetan, paisajeari dago-kionez, hutsunea nabaritu den arren, bertako zuhaitzak hazten direnean asko irabaziko du Uzturreko basoak.

• [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)



Bertako espezieak landatuko dituzten lursaila 24,4 hektareakoa izango da. HITZA

### IBARRAKO UZTURPE IKASTOLAK Irakasle bat behar du

- Jornada murriztua (%63.6).
- Magisteritza, atzerriko hizkuntzan espezializatua.
- EGA agiria.
- Balioetsiko da eleanitz metodoaren ezagutza.

Curriculumak jasotzeko epea: uztailaren 9a  
Curriculumak bidali: [mibarguren@uzturpeikastola.org](mailto:mibarguren@uzturpeikastola.org)

UZTURPE IKASTOLA. Egi-alde, 2- 20400 Ibarra  
Tf:943/671299; E-maila: [Ibarra@ikastola.net](mailto:Ibarra@ikastola.net)

**Aitor Aldalur** > **Lleidako futbol jokalaria**

Tolosan hasi, Realean hezi, eta azken bi urteak Amorebietan igaro ondoren, Aitor Aldalurrek Lleidan jokatu du datozen bi denboraldietan. Bigarren mailara igotzeko helburua du tolosarraren talde berriak, eta hori lortzeko gogor saiatuko dela dio.



# «Aurrerapauso handia izango da Lleidan jokatzeara»

MIKEL IRAOLA

**Mikel Iraola** Tolosa

Futboleko bere ibilbidea hasi zuen estadioan dago zain Aitor Aldalur (Tolosa, 1991), Berazubi Estadioan alegia. Aurrelari moduan hasi zen talde urdinean, eta urteen poderioz eskuin hegaleko defentsa bilakatu da. Puntua-puntuko futbol jokari izatea izan du amets Aldalurrek. Helburu hori lortzeko egin beharreko bidea, baina, ez da erraza izaten futbolariarentzat. Ondo aski daki hori tolosarrak. Urte zailak, eta hobeagoak pasa ditu han eta hemen. Orain Lleidak fitxatu berri du datozen bi denboraldietarako. Amets hori lortzeko bidean «beste aurrerapauso» bat gehiago dela dio, eta hasteko ilusioz da.

**Gustura al zaude zure helmuga berriarekin?**

Bai, oso gustura. Nire ibilbidean aurrerapauso handia da. Talde historikoa da, oso ona gainera. Proiektu serioa egin dute hurrengo urterako, eta aukera ona dut.

**Zer nolako erreakzioa izan zenuen Lleida bezalako talde batek zuegan interesa zuela jakitean?**

Aurtengo denboraldiaren erdialdean banekien ez nuela hurrengo denboraldian Amorebietan jarraituko. Pentsatzen nuen garaia zela aurrerapauso bat emateko. Denbora batez, eskaintzen zain izan nintzen, eta Lleidarena iritsi zen. Hasieratik gogoz hartu nuen, nirekiko erakutsi zuten interesa asko gustatu zitzaidan.

**Izan dituzun gainontzeko eskaintzetatik zerk bultzatu zaitu Lleidarena aukeratzera?**

Esan dudana moduan, hasieratik erakutsitako interesak. Behin eta berriz galdetu dute. Denboraldi erdian jada deitu zidaten. Beranduago ere bai. Azken batean, horrelako jarrerak erakusten du taldean nahi zaituztela bai edo bai. Futbola gaur egun nola dagoen ikusita eta aurrera egitea zenbat kostatzen den ikusita, asko baloratu dudana gauza izan da. Talde askok gauza asko saltzen dizkizute, baina garrantzitsuena talde horrek benetan zu nahi izatea da, eta hori gertatu da Lleidarekin.

**Gainera taldearen helburu nagusia bigarren mailara igotzea da, ezta?**

Bai horixe da. Horregatik diot aurrerapauso bat dela. Amorebietan bezalako talde batean, bi denboraldi oso on egin ditugu, baina ez da gure helburu nagusia izan. Lleidan gauzak aldatu egiten dira. Horretaz aparte, niri futboleko jokatzeara gustatzen zait, asko bizitzen dut, eta Lleidak minutuak izaten jarraitzeko aukera ematen dit, eta hori ere baloratu dut.

**Pasa den urtean Lleidaren aurka jokatu zenuen. Aurkari ikuspuntutik, nolako inpresioa jaso zenuen?**

Lehen itzulian, Amorebietan jokatu partidan irabazi egin genien, baina oso talde lehiakorra eta serioa da. Ondoren, itzulerako partidan, futbol zelaia, zaleak eta guztia gertutik ikusita, talde txu-

kuna iruditu zitzaidan. Gainera, ordurako banekien aukera nuela bertan amaitzeko.

**Aurreko astean, Lleidan izan zinen kontratua sinatzeko. Zer nolako harrera egin dizu klubak?**

Oso ona. Taldean lanean dabilen jendea ezagutu nuen, futbol zelaia eta gainontzeko instalakuntzak erakutsi zizkidaten, eta ikusitakoarekin oso gustura geratu naiz. Itxura ona du.

**Nolakoak dira, bada?**

Futbol zelaiak lehen edo bigarren mailako talde askoren tankera du. Gero dituzten baliabideak onak

**«Familia botako dut faltan gehien, baita lagunak ere. Tolosan oso ondo bizi bainaiz»****«Hasieratik nigatik erakutsi zuten interesak bultzatu nau Lleidako eskaintza onartzerara»**

dira: gimnasioa, entrenatzeko soilik erabiltzen dituzten belar naturaleko bi zelai... Eta jende asko dabil atletik lanean, garbiketa lanetatik hasita, endokrin, masajista edo medikueteraino. Amorebieta bezalako talde xume batekin konparatuta, ez dago alderik.

**Zaleen partetik, nola jaso dute zure fitxaketaren albistea?**

Twitter bitartez jarraitzaile asko-

ren mezuak iritsi zaizkit aste gutxian zehar. Espero dut hasiera honetan eurek eman didaten konfiantza, beraiei itzultzea.

**Futbolari zarenetik, lehen aldiz bizikozara etxetik urruti. Urduri zaude?**

Zerbait berria hasiera zozazean beti izaten da horrelako urduritasen puntu txiki bat. Baina orokorrean lasai nago. Taldekide batekin biziko naiz, eta ni pertsona irekia naizenez, ez dut uste zentzu horretan arazo handiegirik izango dudunik.

**Zeren falta sumatuko duzu gehien?**

Familia, batez ere. Lagunak ere bai. Azken finean, hemen oso ondo bizi gara, hemengo bizia ona da, baina espero dut hango esperientzia ere aberasgarria izango dela.

**Atzera begiratu bat egiten hasita, azken bi urteak Amorebietan pasa dituzu. Zer nolako balorazioa egiten duzu?**

Oso onak izan dira. Realean urteak eman ditut. Azken urtean bigarren taldean izan nintzen, eta oso urte zaila izan zen niretzat. Amorebietan futbolari bezala egonkor-tu egin naizela esango nuke. Uler-tu dut zer egin dezakedan eta zer ez, eta zentzu horretan oso esker-tuta nago Amorebietari.

**Minutu asko jokatu dituzu bertan. Lehen aipatzen zenuen konfiantza hori garrantzitsua izan da, ezta?**

Bai guztiz. Intxaurraga (entrenatzailea) futbol munduko nire aita bezala izan dela esan dezaket. Berak hasieratik eman zidan kon-

fiantza, eta gauza asko erakutsi dizkit. Eta horregatik guztiagatik oso eskertuta nago.

**Zer da ikasi duzun hori?**

Realean zaudenean badirudi berterik ez dagoela, eta bertatik alde egitean badirudi futbola bukatzen zaizula. Ikasi dut hori ez dela horrela, eta futbol asko dagoela harago. Kompetitzen ere ikasi dut. Realean jokalaria oso onak daude, baina horrelako talde eta zelaietan ikasten da futbolari bezala gogortzen.

**Realetik ateratzea kolpea izanzen?**

Egin nuen urtea zaila izan zen, ez bainuen asko jokatu. Hurrengo aurrendenboraldian ahal nuen guztia eman nuen, eta oso sentazio onekin amaitu nuen. Uste nuen jarraitzeko moduan izango nintzela eta egia esan, ez nuen espero handik ateratzea. Baina esaten dizutenarekin ados izan edo ez, errespetatu egin behar da.

**Amorebietan izandako bi urteek, beraz, kolpe hori gainditzeko laguntza gisa balio izan dizute?**

Nik minutuak nahi nituen, jokatu egin nahi nuen. Amorebietaren aukera sortu, eta niretzat hobere-na zela pentsatu nuen. Oso denboraldi onak izan dira, eta orain atzera begiratu Amorebietatik ez balitz, ez dakit orain non egongo nintzatekeen.

**Txikitzen lehen mailako futbolari izatea amesten zenuen. Ume haren amets hark bizirik jarraitzen al du?**

Bai, dudarik gabe. Nik hautatu dudana bidea, beste futbolari batzuekiko desberdina da. Bide zuzenagoa da lehen mailako talde baten filial batean jokatzeara, baina nik Lleidarekin bigarren mailan jokatzeko aukera ikusi dut, eta behar bada gauza ondo ateraz gero, hor daukat aukera. Gaztea naiz, eta oraindik asko geratzen zait futboleko. Hori bai, pazientzia izan behar da eta lan asko egin, futbolak goran edo beharan segituan jar-tzen baitu bat.

**Realera bueltatuko zinateke?**

Bai, noski. Ni beti Realean oso gustura izan naiz, tratu ona eman izan didate beti. Bukaeran ez genuen gaizki amaitu. Nik beraien erabakia errespetatu nuen bezala, euren nirea errespetatu zuten, eta ez dago inolako ezinikusirik.

**Castañedak Realeko lehen taldearekin hasiko du aurrendenboraldia**

➔ Jagoba Arrasatek, Realeko entrenatzaileak, gaur aurrendenboraldia hasteko egindako deialdiaren barnean da Julien Castañeda. Talde txuri-urdinako prestatzaile berriak 22 futbolari deitu ditu, eta nor bere selekzioekin kontzentratuta izan diren futbolariak utzitako hutsuneak betetzeko bigarren taldeko bost jokalarik eraman-gotu. Tartean da tolosarra. Etxa-beguren, Royo, Fuchs eta Sangalli dira beste lauak.

# Herriartekoaren finalera joateko eskatu diete tolosarrei

Tolosako Udalak autobusak dohain jarriko ditu iganderako; herri bazkaria egingo dute finalaren ostean

## Asier Imaz

Gipuzkoako Herriarteko Esku Pilota Txapelketaren finala igande honetan jokatu da Donostiako Atano III.a pilotalekuan. Eskualdeko talde bat egongo da azken lehian honetan, izan ere, Tolosak orain arteko aurkari guztiak gainditu ditu. Gauza bera egin duena Oiartzun izan da, eta ondorioz, bi herrien artean erabakiko da Gipuzkoako txapeliduna nor den.

Finalak 10:30ean hasiko dira, eta kantzara irteten lehenak kadeak izango dira. Tolosarren alde, Egiguren-Peña. Ondoren, jubenilen txanda iritsiko da, Mujika-Beloki bikoteak ordezkatuko ditu tolosarrak. Azkenik, finaleko hirugarren partida seniorrek jokatuko dute, Mujikak eta Errazkinek, hain zuzen ere.

Pilotariak gogoarekin aurkitzen dira finalerako, eta fisikoki ongi daudela aitortu dute. Horrez gain, tolosarrei deialdi zuzena egin nahi izan die, finalera joan daitezzen eskatuz.

Gipuzkoako herri arteko txapelketa maiatzaren 12an hasi zen. Finala uztailaren 7an jokatu da, eta ibilbide horretan, Tolosak ondorengo taldeak gainditu ditu:

Zumarraga, Berrobi, Hernani eta Bidegoian. Lorpen berezia da tolosarrentzat, izan ere, txapelketa honetako finalera azken aldiz 1975. urtean iritsi ziren.

Orduko hartan, aurkaria eta txapela irabazi zuena Azkoitia izan zen.

## Autobusak dohainik

Igande honen garrantziaren jakituz, Tolosako Udalak bat egin du pilotarien ibiliarekin, eta bere ekarpena egiteko gogoz, autobusak antolatu ditu Donostiara joateko, ondoren, gainera, herri bazkaria antolatu du. Peio Etxabe Tolosako Kirol zinegotziak udalarentzat harro egoteko moduko lorpena dela esan du: «Txapelketa berezia da herriartekoa, herri moduan lehiatzen baitira pilotariak, taldean. Hiru bikotek defendatzen dute herria eta bakoitzak egiten duenak bestearengan eragina du. Denen artean lortu behar baitute aurrera egitea».

Finalean sei pilotari ariko dira lehiandean, baina Etxabek horren atzean dauden guztien lana azpimarratu nahi izan du: «Lorpen honek erakusten du Tolosako pilotarako afizioa badagoela, eta horren erakusle da ere, egun Tolosako pilota eskolan 200 ikasle inguruk dihardutela. Halaber, ziurrenik, lorpen hau herriko gaztetxo horientzat eredu garri izango da, eta pilotan jolasten jarraitzeko arrazoiz».

Udaleko Kirol zinegotziak herriarteko finalera joateko eskatu die, eta finalerako sarrerak, eta



Loritz Egiguren pilotaria, Peio Etxabe Tolosako Udaleko Kirol zinegotzia eta Jon Ander Peña pilotaria. HITZA

autobuserako nahiz bazkarirako txartelak Rakun, Orbelan eta Fronton kafetegian daudela esan du. Autobusak 09:30ak inguruan irtengo dira Tolosako Santa Klara paretik. Finala amaitu ondoren egingo dute itzulerako bidaia, izan ere, herri bazkaria egingo dute ondoren, Tolosan.

Atano III.an partidak ikusteko

bi sarrera mota daude. Bata, gradarako, honek bost euro balio ditu eta bestea kantxarako, eta honek 10. Autobusa berriz, sarrera erosten dutenentzat, dohainik izango da. Bazkarirako tiketek berriz, 15 euro balioko dute eta aipatutako tokietan erosi ahal izango dira.

● [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

## ↓ Herriartekoa

### UZTAILAK 7, IGANDEA

■ **Txartelak eta sarrerak.** Orbelan, Rakun eta Fronton kafetegian daude finalerako sarrerak salgai; autobuserako eta herri bazkarirako zerrendak.

## Adunako X. Transernio pilota txapelketa gaur hasiko da

39 bikotek hartuko dute parte aurtengo edizioan; gaur bi partida jokatu dira eta asteburuan hamar

## A. Imaz

Adunako Txulobi pilota elkarteak antolatzen duen Transernio pilota txapelketa gaur hasiko da, 18:00etan. X. edizio honetan 39 bi-

kote ariko dira lehiandean, lau mailatan banatuta. Benjaminak, alebinak, infantilak eta kadeteak ikusteko aukera egongo da Adunako pilotalekuan. Finala abuztuaren 10ean jokatu da, urtero bezala, Adunako jaien barruan.

Txapelketako lehen jardunaldian bi partida ikusteko aukera egongo da. Alde batetik, alebinen arteko lehiandean Andoingo eta Altzoko bikoteak irtengo dira kantxara, eta ondoren, infantiletan, Asteasu eta Altxo lehiatuko dira.

Bigarren jardunaldia hilaren 6an, larunbatean jokatu da. 10:00etan hasiko den pilota jaialdia bost partidek osatuko dute. Infantiletan, Zizurkil eta Bidegoiango ordezkariek egongo dira Adunako pilotalekuan. Igandean, hilaren 7an, beste bost partida ikusteko aukera egongo da. Hauek ere 10:00etan hasiko dira, eta eskualdekoei dagokienez, Alkiza, Asteasu, Zizurkil eta Bidegoiango pilotariak egongo dira bertan.

# berria bekak 2013

## Norentzat:

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

## Kazetaritza arloa zortzi beka

## EZAUGARRIAK:

- Bederatzi hilabeteko iraupena, irailtik ekainera
- 6.255 euroko diru laguntza
- BERRIAk Andoainan duen egoitza nagusian edo ordezkaritzetan



Alegiako udaletxeko balkoian 'Euskal presoak Euskal Herrira' jartzen duen banderola dago zintzilik. A. IMAZ

## Alegiako Udalak euskal presoen eskubideak defendatzen jarraituko du

'Euskal presoak Euskal Herrira' dioen banderola udaletik kentzeko aginduari erantzun dio alkateak

Asier Imaz Alegia

Karlos Urkijo Espainiako Gobernuak Euskal Autonomia Erkidegoan duen ordezkariak, Donostiako Auzitegi probintzialesan saketa jarri zuen hainbat udalen aurka. Urkijok, *Euskal presoak Euskal Herrira* jartzen duen banderola udaletxetako balkoiatik kentzeko eskatu zuen. Donostiako Probintzia Auzitegiak eskaria agindu bilakatu eta Gipuzkoako lau udalerriri mezua bidali zien, banderola kentzeko eskatuz. Lau udal horien artean dago Alegiako, eta bere alkateak, Unai Iraolak, auzitegiaren erabakiarekin ez duela bat egiten esan du: «Euskal presoak Euskal Herrira aldarrikapena gehiengo sozial amitz eta zabalak egiten du bere. Urteetan zehar, hainbat modutan plazaratu du aldarrikapen hori euskal jendarteak: kartel eta pankarta ezberdinen bidez, adierazpen instituzionalen bidez, edo mobilizazio erraldoien bidez, urtarilean Bilbon burutu zen manifestazioa horren adibide».

Iraolaren esanetan, eskualdeko herrietan ere, gehiengo zabal batek egiten du bat euskal preso-en Euskal Herriratzarekin, «bai eta dagozkien eskubideen errespetuaren exijentziarekin». Aldarrikapen horien isla, herrietako udalbatzetan maiz agerian geratu dela esan du Alegiako alkate-



Urretxu, Alegia eta Oiarzango alkateen agerraldia. HITZA

ak, eta horregatik dagoela banderola udaletxetako fatxadetan: «Osoko udalbatzarraren erabakiari jarraituz jarri izan dira, espetxe legea betez euskal preso-en Euskal Herriratzeari eskatzen duten adierazleak. Udalak demokratikoki hartutako erabakiak izan dira kasu guztietan».

### Auzitegiari erantzuna

EH Bildutik Donostiako Probintzia Auzitegiaren erabakia salatu dute, Karlos Urkijori men egin diotela esanaz. Horren aurrean, auzian dauden lau udalerrietako alkateek hiru mezu plazaratu dituzte. Alegia, Astigarraga, Oiarzutu eta Urretxuko udal ordezkariak, lehenik eta behin, auzitegiaren erabakiarekin ez dutela bat egiten esan dute: «Euskal preso-en eskubideak aldarrikatzean, gaur egunean indarrean dagoen legegia betetzeko besterik ez dugu eskatzen. Udalak demokratikoki onartutako erabakia izanik, preso dauden pertsonen es-

kubideak aldarrikatzen direla kontutan hartuta, indarrean dagoen legegia betetzeko eskatzea ez dugu inondik inora 'Neutraltasun politikoaren' urraketa gisa ulertzen».

Karlos Urkijoren jarduna ere salatu nahi izan dute, eta jokabidea aldatzea eskatu diote: «Gobernu ordezkari gisa duen karguaz balliatzen ari da, ez dagokion eremuan sartzeko, instituzioen autonomia zanpatzeko eta ukazioaren eta immobilitasaren aldarrikapena egiteko. Mehatxuta eta preso-en eskubideen mespretxutik konponbidearen aldeko jarrikerak bultzatuzera pasatzeko eskatzen diogu».

Azkenik, euskal presoek dagozkien eskubideen errespetuaren aldarrikapenari eusteko borondate politikoa irmoa adierazi dute: «Gure herrietako herritarren gehiengo zabalaren aldarrikapena gure egiten dugu, eta aldarrikapen horiekiko gure konpromisoa mantenduko dugu».

## Materia egituratzailea



### Bioaniztasunetik

Jon Ander Galarraga

Biologoa

**M**odan dagoen konpostaren gaiari amaiera bat emanez eta nire irakurleak gehiegi aspertu gabe, aste honetako zutabearen konposta egiteko ezinbestekoa den elementu bati buruz hitz egingo dugu: materia egituratzailea, edo jendeak dioen bezala, «zerbait seko»-ri buruz.

Nire irakurleen gehiengo konpostatzailea da. Beraz, badakizue soberan zer den material egituratzailea. Material egituratzaileak, gure konpostagailu barruko nahasteari, aldami baten moduan egitura egonkor bat emango dio eta bide batez, sukaldeko hondarrek sortzen duten umeltasuna gutxituko dute, eltxo eta usain txarrak ezabatuz. Ezinbestekoa da zure konpostagailu barruko %50 material egituratzailea izatea! Egiturazank!

Material egituratzaile mota ugari daude, denak dira baliogarrak, baina gaurko zutabearen nire esperientziari jarraituz material egituratzaileen podium bat egingo dut, kaxkarrenetik hoberenera.

Honekin ez dut esan nahi beste material egituratzaileek ez dutenik balio, izan ere, gomendioa da, eskuragarri duzun material egituratzailea erabiltzea, baina esperientzia eta informazioa, gizakiak duen armarik hoberena denez... hona hemen Gipuzkoako lehen material egituratzaile txapelketako podiuma!

Podium honetan laugarren postuan, zerrautsa daukagu. Zerrautsa oso material lehorrak da, oso erraz jasotzen du konpostagailu barruko umeltasuna, baina ez dio egiturarik ematen. Ikusi dudanez, zerrautsa materia organikoaren bueltan itsastan da eta errebozatu moduko bat egiten du. Errebozatu honek lehortu bai, baina ez du batere aireztatzen, eta konpostatzaile berak ez badu ongi aireztatzen, konpostagailu azpialdean batere aireztapenik gabeko materiala pilatzen da. Beraz, zerrautsa bai... baina ongi aireztatu!

Podiumaren hirugarren postuan hostoak daukagu. Oso erraz topatzen den materiala da, batez ere udazkenean, gainera ugaria denean erraz pilatu dezakegu ez dagoenean erabiltzeko. Baina hostoak oso lauak dira, egitura gogorak, umeltasun gutxi xurgatzen dute eta beren izaera lauagatik, ez dute beti garrantzitsua den aldami funtzioa egiten.

Beraz, zerrautsarekin genuen arazo bera daukagu: hostoak bai, baina ongi aireztatu behar da!

Bigarren postuan, txirbila daukagu. Lortzen nahiko zaila den materiala, ez da zerrautsa bezain ugaria, baina badu abantaila bat. Txirbilak kako forma du, nahiko zurrunda da eta oso lehor egoten da. Kako forma horrekin, aire poltsak egiten ditu eta zurruntasun horrekin, aldami funtzioak nahiko ongi betetzen ditu. Beraz, ez da batere lagun txarra txirbila zure konpostagailuan. Eta adi honekin: txirbila bezain baliogarrak dira fruitu lehorren azalak.

Azkenik, materia egituratzaile hoberena nire ustez: birrindutako zotzak. Hauek ere eskuratzeko nahiko zailak dira, baina gure inguruan baditugu 'guneak' birrindutako zotzak doan lortzeko. Nahiz eta itxura batean ez den oso material lehorrak, oso ongi xurgatzen du umeltasuna eta gainera, zotz izaera horrekin, andamio funtzioak bikain betetzen ditu. Sarritan, material egituratzaile hau deskonposatzen hasita egoten da, lur itxura dauka.

Honek esan nahi du, konpostajea aurrera eramaten duten xomorro txiki ugariak bete dagoela jada eta gure konpostagailura botatzen badugu, azelerante funtzioak egingo dituela, kanpotik inongo produktu kimikorik erabili gabe.

Podium honetatik kanpora geratu den bat, belarra da. Kontuz belarrekin. Belarra material egituratzaile bezala erabili nahi duenak, erabili dezala beti belar lehortua. Belar fresko moztu berriak, konpostagailuko tenperatura igotzen badu ere, ez du aldamioren lana egiten eta denbora aurrera joan hala usain txarrak sortzeko joera du.

Belar lehorrak erabili nahi duen orok, tamaina txiki beldarra erabiltzea gomendatzen dut. Kontuz belar zati luzeekin, zeren, ez dira konpostagailuko materialekin nahastean, goian beratzen dira azal baten moduan eta sarritan aireztatzen diren trabatzen dira. Bestetik, belar luze hauen artean, materia organiko puska ugari geratzen da trabatuta eta eltxoak ugalteko oso leku egokiak sortzen dira. Belar lehorrak beti ahal den zati txikietan erabili.

Eta honekin amaitzen da konpostari buruzko trilogia interesgarria. Urte hau, konposta eta hondakinen urtea izan da eta ea hurrengoak ere honela diren, hondakinen kudeaketa egokia egiten duen lurraldea, lurralde garatua da!

Konposta eta bestelako gai buruzko edozein duda, aholku eta galdera [bioaniztasunetik@hotmail.com](mailto:bioaniztasunetik@hotmail.com)-era, twitter-era [@bioaniztasunetik](https://twitter.com/bioaniztasunetik) edo modu tradizionala: «Hik, periodikon eskribitzez ezta?...».

## Irudia ◯

**ARESO ETA LEITZA «EREDUGARRI»**

Bai Euskarari ziurtagirien elkarteak Leitza, Areso, Goizueta eta Arano saritu ditu, «ostalariek, merkatariek, elkarteek nahiz enpresek Bai Euskarari egitasmoarekin eta lan mundua euskalduntzeko helburuarekin erakutsitako konpromisoagatik». Euren ahalegina «eredugarri» dela eta egiten du-

ten «traktore lanak» ez duela preziorik azaldu dute. Leitzako kultur taldeko Juan Mari Barriolak eta Goizuetako Umore Ona elkarteak Juan Inazio Loiartek jaso dute saria Bai Euskarari elkartearen urteroko ekitaldi nagusian. Anaje Narbaiza eta Vusa eraikuntzak ere saritu dituzte. HITZA

**Diru laguntza jasotzeko aukera dute euskara ikasten ari diren ibartarrek**

**I. Terradillos** Ibarra

Ibarrako Udalak zabaldu du euskara ikasten ari diren ibartarrek euskaltegiko gastuei aurre egiteko diru laguntza eskatzeko epea. Interesatuak Ibarren erroldatuta egon beharko dute, euskaltegi edo barnetegiren batean matrikula ordainduta, ikastaroa bukatuta, %85eko asistentziarekin, eta diru laguntza jasotzeko ez dute debekurik izan behar.

Eskaera egin ahal izateko, eskaera orria aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta, nortasun agiriaren kopiarekin, matrikularen ordainketaren ordainagiriarekin eta euskaltegiaren ziurtagiriarekin, uztailaren 30a baino lehen, udaletxean.

**→ Laburrak****Gazteen etxebizitzaren zozketa egingo dute bihar**

**IBARRA** ▶ Bihar egingo du udalak Euskal Herria kaleko 18an kokaturiko etxebizitzaren zozketa. Gazteei zuzenduriko etxebizitzak dira, alokairuan bost urteko epean eskuratu ahaliko direnak. Zozketa 19:30ean izango da, Euskal Herria kaleko 18ko beheko lokalean. Zozketaren ostean, etxebizitzak ikusteko aukera izango dute bertaratuek.

**Pintxo potea antolatuta dute hilaren 12 rako**

**BERASTEGI** ▶ Datorren ostiralean, hilaren 12an egingo dute pintxo potea Berastegin. Herriko tabernek, hau da, Zelaik eta Kakok, Urepele elkarteak eta udalak antolatuta egin ohi dute pintxo potea. 19:00etan hasiko da, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte parte hartzera.

**Dinamizatzailearen bisita egunak, KZgunean**

**BERASTEGI** ▶ KZguneak dinamizatzailearen bi bisita egun izango ditu hilabete honetan. Hain zuzen ere, datorren astelehenean, hilaren 8an, eta hilaren 22an izango da KZgunean eraikitzaileen zalantzak argitzeko. 16:00etatik 17:45erako orduetartean izango da bertan.

**Inkesta, neska-mutilen eskolarizazioari buruz**

**IBARRA** ▶ Ibarrako Udalak herriko 0 eta 2 urte bitarteko umeen eskolarizazioari buruzko inkesta jarri du abian, «ibartarren iritzia jakin eta zertan asmatzen eta zertan huts egiten ari den jakiteko helburuz». Halaber, udal ludotekari buruzko inkesta ere jarri du martxan, helburu berekin. Inkesta horiek Ibarrako Udalaren web orrian ([www.ibarrakoudala.net](http://www.ibarrakoudala.net)) daude. Udalak herritar guztiak gonbidatu ditu bertan dauden galderak erantzutera.

**Plataformak Maxurrunea Leitzatik gertuago ikusten du**

Nafarroako parlamentuak eraikina kultur eta gizarte ekintzetara bideratzeko mozioa onartu du

**Iñigo Terradillos** Leitza

Nafarroako parlamentuak Maxurrunea ahalik eta azkarren kultur eta gizarte ekintzetara bidera dadila onartu du. Ondorioz, Maxurrunea Herrintzat plataformak gertuago ikusten du Maxurrunea eraikina Leitzari itzultzea.

Iragan ostiralean plataformako hamabi kide joan ziren parlamentura, bertan, Bildu eta NaBai taldeek sartutako mozioa aztertu behar baitzuten. PSNk leitzarren mozioa ordezkatzeko eskaera egin zuen, bi puntuz osaturiko beste bat aurkeztuta. Plataformako kideek azaldu dutenez, «une horretan, eztabaida sutsua piztu zen plenoa minutu batzuetan eteraino». Bada, lehen puntuak plataformaren eskaeraren laburpena jasotzen zuen, hau da, Maxurrunea etxea erabilera kultural eta sozialetara bideratzea. PSN-  
in bigarren eskaerak, berriz,

Guardia Zibilentzat kokapen berria bilatzearen beharra aipatzen zuen.

Puntukako bozketa egin zuten, eta herri eskaera biltzen duen lehen puntua onartua izan zen, aldedeko 26 bozka jasoz (PSN, Bildu, Aralar-NaBai, I-E). Bigarren puntua, ordea, ez zen onartu, UPN, Bildu eta Aralar-NaBaik kontrako bozka eman baitzuten.

Maxurrunea Herrintzat plataformak esan duenez, Nafarroako parlamentuan jasotako babesaren ondoren, Maxurrunea leitzarrei itzultzeko eskaera «are eta legitimoagoa da». Hala, Nafarroako parlamentuak onartutakoa lehenbailehen bete beharko lukeela uste du plataformak. Era berean, Nafarroako Gobernuak «nahi duena egitera» ohituta daudela ere azaldu du: «Horregatik, orain indarrak Nafarroako Gobernuari apelatzen jarriko ditugu». Bada, Maxurrenaren alde Leitzan bildutako sinadurak helaraziko dituzte, eta bilera eskatuko dute hainbat gobernu arduradunekin. Bestalde, uda «hausnarketa sako-nagoa» egiteko baliatuko dutela, eta irailean berriro ere lanketari ekingo diotela adierazi dute plataformatik.



Maxurrenaren aldeko manifestazioa eraikinaren ondotik igarotzen. I.T.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**



21°  
16°

GOIZA 23°  
ARRATSALDEA 23°  
BEROENA 23°  
HOTZENA 16°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Eneritz Maiz  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leizalde:** 687 410 118. leizalde@hitza.info

**Tolosa Herria  
Hedabideak  
SM-ko kideak:**

**BERTAKO  
HEDABIDEAK**



**Galtzaurdi  
euskarra  
taldea**



eta Tolosaldeko  
eta Leizaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alizo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Irudia** Tolosa



**«LEHEN MAILAKO» KONTZERTUAK**

Lau egunetan, Tolosand blues musika jaialdiak, musika ekarri du Tolosako kale eta tabernetara. Iñigo Martin antolatzaileak «oso positibo» baloratu du aurtengo jaialdia. Bai musikariaren kalitatearen aldetik, eta baita jendearen parte hartzeagatik ere: «Jendeak ondo erantzun du, eta kontzertuetan izan direnek oso ondo baloratu dituzte

kontzertuak», adierazi du. «Taldea onak izan dira, eta lehen mailako kontzertuak izan direla esan digute», gaineratu du. Musikariak ere gustura parte hartu dutela jaialdian nabarmendu du. Era berean, eskerrak eman nahi izan dizkie Tolosako Udalari, jaialdian parte hartu duten ostalari guztiei eta Sukia harategiari. HITZA

**Agurrak**

**AGURRAK**  
943-65 56 95 [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

**agurrak**

**Zorionak!**  
Misis Corn. Ondo pasa eguna!

**Farmaziak**

**GAUR**

■ **Tolosa.** Egunekoa: Morant, R. Zabalarretako lorategiak, 1. Telefonoa: 943 67 38 49. Gauekoa: Olarreaga, M. Martin J. Iraola etorbidea, 10. Tlf: 943 67 24 38.  
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

**Mauka berria** GAURKO ESKAINTZA

**XVII. mendeko Murueta baserri-jauregian galdialdia**

**Prezioa 60€**

**www.mauka.eu** **berria taldea**

Murueta nekazalturismoa  
Murueta, 4 (Matiena)  
Abadino 48220 bizkaia  
Tel.: 946-23 26 10  
karmentera@gmail.com  
<http://www.nekatur.net/murueta>

**Egin HITZAren HARPIDEDUN**  
ekainaren 1etik uztailaren 22ra arte, ETA JASO:

**Barrenetxe**  
[www.barrenetxe.com](http://www.barrenetxe.com)  
sasoiko barazkien otzara

Harpidedun egiten diren guztien artean

**Orduñako Aisia hotelean, bi pertsonarentzako asteburu baterako egonaldia ZOZKATUKO DUGU**

**Harremanetarako:**  
902 82 02 01  
[harpidetza@hitza.info](mailto:harpidetza@hitza.info)

**hitza**